Nino es especial. Para mí, el reto de esta novela era su voz, la voz de un niño que cuenta el terror desde dentro y desde fuera, sin saber exactamente por qué pasan las cosas que integran su vida cotidiana, por qué le ha tocado vivir enormidades que ni siquiera es capaz de comprender, pero que le obligan a actuar, a comprometerse casi por instinto. Sólo pude lograrlo deslizando, aquí y allá, indicios que permitieran descubrir al lector que quien habla es un hombre adulto que se recuerda cuando era niño, tal y como se descubre en el epílogo. Ese equilibrio entre lo que sabe y lo que no, entre lo que supo a los nueve años y lo que muchos años después sabe que sabía, ha sido lo más difícil de esta novela.

**Llaman la atención los motes de algunos de sus personajes: "fingenegocios", "pesetilla" "carajita" "cuelloduro", y muchos más. ¿Le han llegado así o los ha inventado?**
Yo tengo muchos amigos de Jaén, y siempre he pensado que en ningún otro lugar tienen tanto ingenio, tanta gracia para poner motes. Y en Jaén, como en toda Andalucía, los motes son más eficaces para identificar a la gente que sus propios nombres. Además, los guerrilleros siempre usan nombres de guerra, destinados a esconder su verdadera identidad, y al consultar la bibliografía sobre la guerrilla andaluza, me dí cuenta de que en esta zona se parecían mucho a los motes tradicionales. Por eso pedí ayuda a algunos amigos que habían nacido o se habían criado en pueblos de Jaén, como Los Villares, Úbeda, Alcalá la Real, Villacarrillo...

**Historias como las del profesor encarcelado por defender la teoría de la evolución parecen increíbles.**
En realidad, al marido de doña Elena le encarcelan por ser ateo y defender en público su ateísmo. Encarcelados como él, hubo muchos. Otros no llegaron ni a la cárcel, pero más increíble resulta que la mujer de un guerrillero pasara nueve años y medio -¡nueve años y medio!- presa, sólo por declarar que el hijo que esperaba era de su marido y eso es verdad. No sólo aparece en los libros, también me lo ha contado su nieta.
En "El lector de Julio Verne", quizás porque es una historia inspirada en una persona real, mi amigo Cristino, que se crió en la casa cuartel de Fuensanta de Martos sólo unos años después de la época en que se situa esta novela, abundan los testimonios de personas auténticas. Muchas de las historias que cuento aquí, la muerte del propio Cencerro, la historia del alcalde vitalicio de Valdepeñas de Jaén, la persecución que sufrieron las mujeres que hacían esparto o revendían huevos, provienen de testimonios orales de personas que me han contado las historias de sus familias. Aparte de eso, he podido manejar algunos libros.

**¿Cree que las generaciones más jóvenes vislumbran siquiera esta versión de la historia?**
En la mayoría de los casos, es imposible que sea así, porque no se la ha contado nadie. La resistencia contra el franquismo es la gran olvidada de los libros de texto y pervive la versión de los "bandoleros", criminales comunes, que extendió la propaganda franquista.
Sin embargo es asombroso comprobar hasta qué punto sigue viva la leyenda de la guerrilla en algunas zonas, las que sufrieron una represión más feroz. En la Sierra Sur de Jaén todo el mundo sigue sabiendo quién era Cencerro, cómo era, dónde nació, dónde murió... También los jóvenes, aunque probablemente no sean capaces de integrar lo que saben en una versión paralela de la Historia que aprenden en los libros.

Patxo Abarzuza

# SONIA **FERNANDEZ VIDAL**



## QUANTIC LOVE, MAITASUNA DELAKO UNIBERTSOKO ENERGIARIK INDARTSUENA




Sonia Fernandez Vidal, fisikan doktorea zen idazle bihurtu aurretik. Muduko ikerkuntza zentro garrantzitsuenetan (CERN, LANL eta ICFO, besteak beste) lan egin ondoren, literaturara jauzi egin zuen. “La puerta de los tres cerrojos” bere lehen liburuak, milaka irakurle izan zituen eta hamaika hizkuntzetara itzulia izan da. Quantic Love bigarren liburua du. Jendeari zientzia hurbiltzeko helburuz maitasun istorioa josi du. Hori omen da unibertsoko energiarik indartsuena, maitasuna.

**Zer aurkituko dugu Quantic Love liburuan?**
Munduan den fisikako partikulen ikerketa zentrorik handienera eramango gaitu liburuak, CERN delakora. Bertan dago Laila protagonista gaztea, aulki artean oztopoka dabiltzan ehunka ikertzaileei eguneko menua zerbitzatzen, eta hortxe geratuko da biren artean harrapatuta: batetik Stefano, zientzia dibulgazioko kazetaria eta bere bat-bateko inguratzeak, eta bestetik, Brian, doktorego ikasle herabe eta misteriotsua eta bere dibagazioak zientziaz eta kosmosari buruz.
**Zenbat dauka autobiografiatik?**
Autobiografikoena inguruaren deskribapena da, nola bizitzen den CERN bezalako ikerkuntza zentro batean, eta ikertzaileen artean sortzen diren adiskidetasun harremanak. Baina maitasun istorioari dagokionean ez da autobiografikoa.
Fisika eta maitasuna nahastea La Galera argitaletxeko Iolanda Batallé eta Frances Mirallesen ideia izan zen. Haiek proposatu zidaten. Hasieran komiko samarra iruditu zitzaidan, baina bi buelta eman orduko konturatu nintzen ikuspegi honen baloreaz, izan ere, zientzian pentsatzean, bata zuriz jantzitako gizon zahar, barnerakoi, lehor eta aspergarria datorkigu gogora. Liburu honen helburuetako bat bada ikuspegi askoz ere errealistagoa ematea: ikertzaileak, batez ere pertsonak dira, maitemindu, negar, barre egin eta parranda jotzen dutenak.
**Norentzako da liburua?**
Zientzialarien alderik gizatiarrena deskribatzen duen maitasun istorio bat izan arren, adin tarte handi bat har dezakeen liburua izan daitekeela uste dut. Atzean dauden zientzialari ezagunen anekdotak, CERN zentroari eta egungo zientzialariak dituzten helburuei buruzko azalpenek irakurle heterogeneo bat erakartzea lortzen dutela iruditzen zait.
**Hori da beraz helburua, jendea zientziara erakartzea.**
Liburuaren helburua da zientziarekin maiteminduta gaudenok gero eta gehiago izatea. Horretarako lortu nahi dut jendea entretenitu dadila, baina zerbait erakusten duen entretenimenduarekin, eta garrantzitsuena, transmititu nahi dut ikasiz ondo pasa daitekeela.
Dena den ez da zientzia saiakera, ez dut espero jendeak fisika modernoa ulertzea, horretarako dibulgazio liburu bikainak daude. Kuriositatea piztea lortzea arrakasta litzateke niretzat.
**Zure lehen liburua oso arrakastatsua izan zen. Asko harritu al zinen?**
Onerako harritu ninduen, bai. *Los Tres Cerrojos* bezalako proiektu bat sortzean plazera da hazi eta bizitza propioa hartzen duela ikustea. Bestalde poztu nintzen zientziarekiko interesa zuen hainbeste jende ikustean. Argitaletxe eta hedabideek kontuan hartu beharreko zerbait da: uste dena baino interes handiagoa du jendeak zientzian. Hori niretzat notizia bikaina izan zen. Quantic Love bigarren esperimentu baten antzekoa da. Estiloa eta estrategia erabat ezberdinak dira; ikusiko dugu.
**Formazioz zientzilaria zara, baina literaturan zabiltza. Bietako zein esparru nahiago?**
Espero dut bietan jarraitzea, bien arteko nahasketa batean. Orain zientzia ikerkuntzan ez ibili arren, beste ikuspegi batetik baldin bada ere zientzia munduari lotuta jarraitu nahi nuke.

Miren Balantzategi



# KUPELA

## GAILURRAK IKUTUZ






### LAZKAO TXIKI ISPILUA

*Oso ispilu polit eder bat*
*didate aurrera ekarri*
*eman duenak jakingo zuen*
*mutil zahar-zahar honen berri*
*gazte dan arte hau izaten da*
*gazte guzien pozgarri*
*zahartutakuan ez da beiratzen*
*hau gaztetan bezain sarri*

*Aizak nik hiri bota behar dit*
*bertso koxkor bat edo bi*
*behingoan jarri*
*geran ezkero*
*biok aurpegiz-aurpegi*
*neri begira hortik daduzkak*
*alperrikako bi begi*
*noski hik ez nauk ni ikusiko*
*baina nik ikusteaut hi*

*Neri begira jarrita moteil*
*zertako hago horrela*
*ta pentsatzen dit*
*aspalditxotik*
*ezagututzen hautela*
*mutil zaharraren*
*moko horrekin*
*ez dek ematen motela*
*azal ximurtzen*
*ari haiz moteil*
*Lazkao Txiki bezela*





"Gailurrak ikutuz" Kupela taldearen disko berria ezberdina da, dantzarako primerakoa, beti bezala, baina letrei arreta jarriz entzuteko ere ona. Izan ere, Mitxelena, Lasarte, Lazkao Txiki, Lopategi, Gorrotxategi, A.M. Loidisaletxe, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañaren bertsoak jaso eta kantatu ditu Angel Larrañagak oraingoan, bere bertsoekin batera.

Angel Larrañagak aspaldiko ilusioa bete du disko honekin: urtetan zehar Euskal Herriko plazetan zuzenean entzun, gustatu eta buruan jasotako bertso batzuk zituen. "*Bertsolari guzti hauekin bertsotan aritua naiz, zaharrago edo gazteago baina guztiekin taula konpartitu izan dut. Diskoan jaso ditudan bertso guztiak nik buruan nituen. Abestu zirenean han nintzen taula gainean edo entzule moduan. Entzun nituenean oso onak iruditu zitzaizkidan, gailurra jo zutenaren inpresioa nuen.*" Eta inolako grabagailuren beharrik gabe gogoan hartu zituen batzuk. "*Oso grabatuak geratu zitzaizkidan: Lazkao txikiren "ispilua", Lopategiren "erropa zaharrak bota dituzu zakarrontzi batetara eta hor ikusten duzu beste bat jasotzen*"… asko dira onak."

Abestutako doinuan jaso ditu bertsoak Angel Larrañagak eta Xabier Zabale trikitilaria arduratu da musikaren moldaketaz diskoan, Larrañagaren ustez oraingo gazteek agian ezagutuko ez duten doinuren bat ere bai tartean. "*Garai batean ez genuen gaur egun erabiltzen den doinu mordo hori erabiltzen. Zortziko txikian asko abesten zen eta beraz bertso zuzenagoak egiten ziren, betelan gutxiagorekin.*" Diskoan gai jartzaileen ahotsa ere entzungo dugu tarteka, garaiko grabaziotik hartuta.



Diskoa grabatzerakoan betiko formazioan jardun dute Kupelatarrak, nahiz oraingoan panderoak eta bateriak presentzia apalagoa izan ahotsaren mesedetan. Aitor Furundarena eta Arkaitz Miner lagun izan ditu Larrañagak, besteren artean.

Diskoa borobiltzeko, beti bezala, hamaika erromeria eskainiko dituzte, baina oraingoan, "entzuteko" emanaldiren bat ere emateko gogoa dute. Kupelatarren *Gailurrak ikutuz* diskoa interesgarria da, entzunaldi bat baino gehiago merezi eta izango duena.

# LAS HORAS DISTANTES

## La nueva novela de KATE MORTON

Después del éxito de ***El jardín olvidado***, vuelve Kate Morton, la autora que todo el mundo recomienda: lectores, libreros, editores, periodistas, escritores, blogueros…












FOTO: Richard Whitfield

*Comenzó con una carta.*
*Una carta que llevaba extraviada mucho tiempo,*
*esperando durante más de medio siglo en una saca de correos olvidada*
*en el oscuro desván de una anodina casa de Londres…*

SUMA de letras

PRISA EDICIONES

www.sumadeletras.com

Síguenos en:



BIDAIAK MENDIAK

# UN VIAJE POR LOS AROMAS DEL VALLE SALADO

Recolectar los frutos que surgen de la tierra es un instinto, un atavismo que mantenemos desde que éramos cavernarios. No importa de qué se trate, si de una raíz, como la de la achicoria silvestre, de hojas aromáticas como las del espliego o de frutos como las moras; cuando en un sendero encontramos una baya o una especia, nos acercamos, cogemos un trocito, lo olisqueamos, lo probamos y al momento comenzamos a imaginar qué tal quedaría en una ensalada o como base de un licor. Va en nuestros genes.

Con esa intención madrugo esta mañana de un mayo recién estrenado. Estoy en el Valle Salado, en Gesaltza-Añana, pueblo salinero donde el viento sur mezcla el olor del salitre con el de infinitas plantas aromáticas que, descendiendo de las laderas llegan incluso a los muros y esquinas de las casas.

Parto de la iglesia. Junto a ella, un enorme tilo cargado de flores exhala un aroma tranquilizador. Las dejo para el retorno y asciendo por un sendero que nace a orillas del riachuelo. Pocos pasos más y envuelto en un festival de fragancias, comienzo la recolección. Primero el tomillo, del que tomo unas ramitas para aliñar ensaladas; más allá me dedico al orégano y al romero; sus hojas y flores bien picadas darán un toque exótico a las parrilladas de carne y pescado.

Continúo pausadamente a la vez que me alzo sobre las eras de sal. De pronto, un giro del viento me acerca un conocido y delicioso aroma; es la lavanda, visible ahora por toda la ladera, intercalada entre genistas y enebros. Las espigas están incipientes pero meto unas ramas en la cesta; maceradas en alcohol se obtiene un excelente tónico para el músculo cansado; además, si las introducimos en saquitos de tela conseguimos un refrescante ambientador para casa.



La senda me conduce al lago de Arreo, oscuro y salado, enmarcado por una orla de carrizos, girasoles y avenas. Aprovechando la humedad del suelo, las mentas crecen exultantes. Parto con austeridad unos tallos, pues además de la conocida y digestiva infusión, con la menta tambien se aromatiza el vinagre.

En el borde del camino crecen también los rosales silvestres. En otoño la flor se transforma en escaramujo, baya con la que se hace una rica jalea; pero ahora es época de pétalos, delicados y olorosos. Están tan de moda que no me resisto a que acompañen al tomillo en la ensalada, y así, mientras recolecto pétalos, otro golpe de olor delata a otra rosácea, el espino albar. Ahí está, tan cargado de flores que el delgado tronco parece incapaz de soportar el peso. Despiden un intenso olor y dicen que con ellas se elabora una de las mejores infusiones para el corazón; les hago un hueco en la cesta y comienzo el retorno, no sin antes visitar la ermita de la Virgen del Lago. Cuenta la leyenda que la Virgen pidió comida en una casa cercana pero tras serle negada, la casa se hundió y en su lugar surgió el lago de Arreo.

En la parte media del descenso tomo una pista que me llevará al monasterio de San Juan de Acre. Antes, la ruta ofrece una de las mejores vistas del pueblo, las eras y la iglesia.

El camino discurre entre endrinos en flor, hinojos, cuyos cogollos se comen en ensalada, y



AÑANA-GESALTZA / SALINAS DE AÑANA

Escala 1cm : 250 m

Nahiz eta Jon Benitok oso ongi azaldu duen ibilbidea galtzeko zirrikitu handirik utzi gabe, beti da erabilgarria eta garrantzitsua mapa zehatz bat edukitzea alboan. Mapa hau eskuragarri dago liburu-dendan.



FRUTOS Y PLANTAS SILVESTRES COMESTIBLES

Nuria Durán

**Geoestel**

Las plantas descritas se han escogido por ser un manjar agradable para el paladar, ser poco comunes y crecer en abundancia y, finalmente, por ser fáciles de reconocer. Es una herramienta de consulta básica que permite llevar en el bolsillo la información justa y práctica para conocer el mundo natural.



EUSKAL HERRIKO ZUHAITZ ETA ZUHAIXKEN GIDA

Iñaki Aizpuru, Pilar Catalan, Francisco Garin

**Eusko Jaurlaritza**

Esku artean duzun lana lehendabiziko Euskal Herriko Zuhaitz eta Zuhaixken Gidaliburuaren oinordekoa da, baina haren edukiak sakonki berrikusi eta zabaldu diren aldi berean –73 familietako 400 espezie baino gehiago deskribatzen dira–, formatua nabarmenki txikitzea lortu da. Liburua hau gaztelaniaz ere badago.

fresitas silvestres, que ensartadas en una brizna de hierba ofrecen un dulce bocado que nos retroae a la infancia.

Hago acopio de lo justo y llego así al monasterio, de reminiscencias templarias y habitado por monjas de clausura. Su patio interior es de obligada visita y aprovechando la misma se pueden comprar la miel y las velas olorosas que elaboran las religiosas.

Pasado el monasterio, un labrador descansa bajo un nogal que ya muestra sus frutos, aún muy verdes. Tras los saludos de rigor, le pido cuatro o cinco frutos y le indico que los quiero para elaborar un licor de nueces verdes, tan dulce como oscuro. Surge la complicidad entre recolectores y me entrega generosamente lo pedido.

Enfilo hacia el pueblo y me detengo en el centro de interpretación de la sal para comprar un paquetito de flor de sal, una maravilla gastronómica que recolectan con mimo en las salinas. Seguido, entro al pediluvio de las salinas, una somera piscina salada donde el caminante relaja sus cansados pies.

De vuelta a la iglesia, decido no coger flores de tila; con paseos como este, no las veo necesarias.



**Jon Benito**
es biólogo dedicado a la docencia
y fotógrafo de la naturaleza



**GRANDES SECRETOS PARA PEQUEÑOS VIAJEROS**
Klay Lamprell
**Lonely Planet**

Erroma, London, Paris eta New York dira Lonely Planeten bilduma berri honen lehen destinoak. Haurrei zuzendutako gidak berezi eta erakargarriak dira. Herri edo hiri bakoitzeko historia, leku eta gertakizun bitxi eta harrigarrienak jaso eta modu errazean kontatzen ditu. Erromakoan esate baterako, garai bateko gladiadoreen kontakizunak egungo futbolarienekin batera nahasten dira, edo modu errazean azaltzen da Panteoiaren kupula eusteko behar izan zen porlanezko sei metroko hormatzarra, edo… Gurasoentzat ere oso lagungarri diren gidak.



**PARQUE NATURAL DE URKIOLA**
Iñigo Muñoyerro,
Fernando J. Perez
**SRB**

Cuarto libro de la serie sobre Parques Naturales de Euskal Herria de esta pareja de periodistas y montañeros. Tras una extensa introducción en la que se da información general sobre el parque, el Santuario, la geología, la vegetación, la fauna, los ecosistemas, la mitología, las prácticas deportivas que se pueden realizar y la red de sendas que atraviesan el parque, el libro propone 40 ascensiones a cimas por diferentes caminos, 7 interesantes excursiones y 13 travesías más largas.



**HUIDA AL TIBET**
Endika Urtaran
**Desnivel**

La historia de unos personajes que escapando de sus vidas, se encuentran inmersos en una siniestra aventura en pleno Himalaya, donde formarán un variopinto grupo de alpinistas y cartógrafos con un objetivo común: buscar el tesoro más valioso del Tíbet en el monte Everest.
Una auténtica novela de aventuras y montañas, de misterios y supersticiones, de amor y de amistad… donde la montaña y la tradición budista no se lo pondrán nada fácil a los protagonistas.



**IZABA BELAGUA – RONCAL**
Hektor Ortega
**Sua edizioak**

Esta guía recoge en sus páginas todo lo necesario para disfrutar de una estancia en Izaba, Belagua y el valle del Roncal. Se trata de una de las áreas más atractivas del Pirineo, con la zona alpina más occidental de la cordillera, cimas legendarias, el paraíso kárstico de Larra, bosques casi primigenios y pueblos que aúnan personalidad y belleza. El libro cuenta con una propuesta de recorridos en coche, paseos y excursiones montañeras por los lugares más espectaculares, una completa guía práctica y mapas de toda la comarca.



**EUSKAL HERRIA MÁGICA / INSÓLITA**
Ibon Martín, Alvaro Muñoz, David Ares
**Travel Bug**

Bi liburu hauek Euskal Herriko hainbat leku bitxi eta eder ezagutzeko aukera eskaintzen dute. Liburu bakoitzak 60 leku eta horien inguruko ibilbide errazak, biltzen ditu. Arkitektura, historia, lanbide zaharrak, utzitako herri galduak, kobazuloak, zuhaitz ikusgarriak… edozer izan daiteke bisita interesgarri baterako aitzakia. Euskal Herria Mágica liburuak familian egiteko ibilbide errazak proposatzen ditu, Euskal Herria Insólitak, aldiz, autoz bertaratzeko lekuak tartekatzen ditu mendi ibilaldien artean.



# MIKEL VALVERDE

## RITAREN SORTZAILEA, BERE PERTSONAIAZ HARRO

*Rita estu eta larri dabil* bere azken abenturan. Oraingoan bidaiarik egin gabe, hamaika abentura eta estutasun biziko ditu etxe inguruan.




Rita, Valverderen irudimenean eta arkatzean jaio zenetik, handituz joan da, neska txikitxoa zen hasieran, orain gaztetxo bidaiari, abenturazale eta ardura-tsua: dagoeneko nobioa izan du, Ipar Polora-ino joan da bidaian, erraldoia ere bihurtu zen behin… Irakurle talde fidela bildu du inguruan Valverderen pertsonaiak.



**Bilduma hazten ari da. Zein abentura berritan ikusiko dugu Rita oraingoan?**
Bildumaren zortzigarren ipuina da eta oso pozik nago. Horrek pentsarazten dit Ritaren abenturak jarraitzen dituzten irakurle multzo bat badagoela, eta bilduma honen alde eginiko apustua bere fruituak ematen ari dela.
Ipuin honetan, hasieran, Rita bere buruaz inoiz baino harroago ikusiko dugu. Eta momentu hori ahalik eta gehien luzatu nahi izango du. Baina ez da erraza denbora guztian bikain jokatu eta besteen onespena jasotzea; are gehiago, ia ezinezkoa dela esango nuke. Dena den, Rita oso buru gogorra da, eta guztiek miretsi dezaten nahi du, horretarako trikimailuren bat erabili behar badu ere.
**Pertsonaia berri bat ere ezagutuko dugu, Nicolai izeneko mutiko bat.**
Nicolai Ritarekin batera ikusiko dugu ipuin honetan. Elementu gutxi erabili ditut argumentua egiteko. Erronka bat izan da niretzat, eta hori asko gustatzen zait. Hau da, eguneroko egoeretatik aldendu gabe eta pertsonaia gutxirekin irakurlearen arreta mantendu nahi izan dut.
**Beti nahi izaten duzu zure liburuetan mezuren bat igorri. Kasu honetan ere bai?**
Nire helburua istorioak kontatzea da; ez dut nahi izaten bestelako baloreak zuzenean adierazi. Errespetu handia diot irakurleari eta horregatik nahiago dut berak ondorioak ateratzea. Egia da erabakiak hartzera behartzen duten egoera zailetan sartuko dela Rita. Pertsonaiaren garapena bera erabiltzen dut argumentuari tentsioa emateko. Ritak buruan darabilen pentsamendua hau da: "Ez dakit zer egiten ari naizen, niri hain justu, gauza hauek guztiak gertatzeko". Ritak, ipuin honetan agertzen diren beste pertsonaia batzuek bezala, zalantzak ditu. Gainera, apala da, eta, azkenean, gertatzen zaizkion gauzetatik ikasteko gaitasuna agertzen du.
**Zer geratzen zaizu kontatzeko?**
Ideiak jasotzen ditudan koaderno pare bat erabiltzen ditut eta beteta dauzkat. Idazten hasi berria naizen irudipena daukat.
**Rita pertsonaia zergatik da neska?**
Jatorria marrazki bat izan zen. Lehenengo pertsonaia grafikoa jaio zen eta ondoren etorri zen ideia literarioa. Asko landutako irudia zen, eta neska atera zitzaidan, ez aurrez pentsatu eta planifikatuta. Horrela atera zen. Ezaugarri oso interesgarri batzuk zituen, ile beltz hori, daukan adierazkortasuna… Gero pertsonaia literario bihurtzean bai egin nuen ahalegin handia neskaren nortasuna lantzen.
**Rita liburuz liburu handituz joan dela dirudi.**
Rita ez da haziko, hortxe dago. Duela bost urte jaio zen, bederatzi bat urteko neska da eta hala izango ditu aurrerantzean ere. Hazi dena, segur aski, idazlea da.
**Liburu hau luzeraz bikoitza da. Ez al ditu irakurleak atzenduko?**
Idazlearen beharra izan da hori. Pertsonaiak hori eskatzen zidan eta idazle gisa zintzo jokatuz gero, horrela egin behar nuen. Nire erronka da luzera horretan ere irakurgai erakargarria eta kalitatezkoa lortzea, haurrek irakurketari eustea.
**Idazlea baino lehen ilustratzailea zinen. Nondik abiatzen eta antolatzen da zure lana egun?**
Ilustratzailea izan nintzen lehenik eta orain idazlea ere banaiz. Prozesu graduala izan da, modu naturalean gertatu da. Rita baino lehen beste nobela grafiko pare bat ere argitaratu nituen. Ritaren liburuetan testu guztia idazten dut eta gero egiten ditut ilustrazioak. Egia da buruan asko eraikitzen dudala marrazki bidez eta planifikazio garaian ere bozetoren bat jasotzen dudala. Baina idazten hasten naizenean idatzi egiten dut soilik, eta gero ilustrazioak egin.
**Pozik al zaude Rita egiten ari den bidearekin?**
Bilduma bat egitea lortu dut, eta egia esan harro nago. Euskarazko Ritak oso diseinu polita dute. Nire lanetik bizi naiz; ez da lorpen txikia.

Miren Balantzategi



# ABIAN DA

# 4. elkar ilustrazio eta ipuin lehiaketa



2009. urtean elkar Fundazioak abian jarritako gaztetxoen sariketak IV. edizioa izango du aurtengoa. Bi kategoriatan banatuta, *IV elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketaren* helburua haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea da. Bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera: Ilustrazio lehiaketa (2002-2007 urte bitartean jaiotako haurrentzat) eta Ipuin lehiaketa (1996-2001 bitartekoentzat).



Orain hiru urte, 2009an, haurrengan irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, *elkar Ilustrazio Lehiaketa* antolatu zen, lehen urte hartan 5 eta 10 urte arteko haurrei zuzendua. Joxean Ormazabalen *Hitz eta zaunka* ipuina eman zitzaien haurrei, eta hauek testuan oinarritutako ilustrazioak aurkeztu behar zituzten. Lehen urte hartan jada espero baino erantzun askoz hobea lortu zen: 701 ilustrazio jaso ziren Euskal Herri osotik. Hau ikusita, hurrengo urteetan lan eta adin esparrua zabaldu, eta *elkar Ilustrazio eta Ipuin lehiaketa* bihurtu zen, parte-hartzea indartzen eta sendotzen joanez (3.562 ilustrazio eta 511 ipuin iaz).

Aurten bi lan proposatu zaizkie haur eta gazteei. Txikienek Joxean Urbietak egindako *Tori zaharra, ekarri berria* ipuina ilustratu beharko dute. Gaztetxoek aldiz, Eider Eibar ilustratzaileak egindako ilustrazioari jarri beharko diote testua.

Lanak apirilaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira. Bai ilustrazioak bai ipuina entregatzeko bi aukera daude: edozein elkar liburudendara eraman daitezke, edo internet bidez **www.elkar.com** webgunean jarritako atal berezira bidali. Ariketa bakoitzean hiru maila daude, adinaren arabera, eta maila bakoitzean lehen eta bigarren sariak emango dira. Sari banaketa ekainaren 2an egingo da.

Ipuina irakurtzea eta marrazkia ikustea baino ez zaizue falta lanari ekiteko.

ORAINTXE DUZUE ZUEN ABILEZIAK ERAKUSTEKO AUKERA!



## DVDdun LIBURU ILUSTRATU ELEBIDUNAK

"Bost sagu bihurri musika jotzen" eta "Bat denontzat eta denok batentzat", bi ipuin dira, biak album ilustratu formatuan eta DVD formatuan emanak, biak euskaraz eta inglesez entzun daitezkeenak. Beraz, aldi berean liburuak ikusi, irakurri eta entzun egin daitezke, nahi izanez gero euskaraz, nahi izanez gero inglesez.

Chisato Tashiro japoniarrak idatzitako **Bost sagu bihurri musika jotzen**, hiru urtetik gorako umeei zuzendutako ipuina da. Ilargi beteko gau batez, bost sagutxo igelen kontzertu batean sartu dira isil-gordeka, baina igelek harrapatu egin dituzte. Hala ere, ondo entzun ahal izan dute igelek ilargiari eskaini dioten kanta, eta musika hori jotzeko asmoz, beren musika-taldea sortuko dute: Bost sagu bihurri. Beren kontzertuari esker, gauza garrantzitsu bat ulertaraziko diete igelei: musika elkarrekin egitea adiskidetasun zoragarri baten hasiera izan daitekeela.

Mosketari ezagunen leloa izenburu duen ipuina, **Bat denontzat eta denok batentzat**, Brigitte Weninger idazle alemaniarrak idatzia da, eta aurrekoa bezala Aiora Jakak euskarara ekarria. Hau ere hiru urtetik gorakoentzat da. Ipuin honetako lagun bakoitzak badu eragozpenen bat, baina baita trebetasun bereziren bat ere. Elkartuta, beraz, oso indartsuak izango dira denak.










## KLIS-KLASIKOAK

Lehen 'Abrite portas, klis-klas!' esan, eta lapurren haitzuloko atea irekitzen zen, iraganeko altxor preziatuak. Orain 'Abrite portas, klis-klas!' esan, eta etorkizuneko altxorrak zabalduko zaizkizu, euskaraz nahiz munduko edozein hizkuntzatan sortutako liburuak:

KLIS-KLASIKOAK!

Klis-Klasikoak izenburupean, titulu klasikoz osatutako haur eta gazte literaturako bilduma berria dago, altxortegia. Galtzagorri Elkartearen ekimenez jarri da abian eta Elkar, Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeen lankidetzaz, dagoeneko lau titulu kaleratu edo berrargitaratu ditu: *Pinotxoren abenturak* (Carlo Collodi & Jokin Mitxelena), *Txan Fantasma* (Mariasun Landa, Jon Zabaleta), *Maria Goikoak Batbirulau* (Anjel Lertxundi & Antton Olariaga) eta *Indianoa* (Gregorio Muro, Francisco Fructuoso).

Argitaletxe bakoitzak berea egin duelarik, liburu bakoitzak ere itxura ezberdina du. Liburu guztiek dute ordea bildumaren zigilua bateratzaile. Klis-klasikoak liburu sortaren helburua lau eta hamasei urte bitarteko haur eta gazteek autore klasiko unibertsalak nahiz euskal obraren altxorrak euskaraz irakurtzeko aukera izan dezaten bermatzea da. Modu horretan, curriculum literarioa euskaraz osatu nahi da.

Betikoak egokitu eta itxuraz gaurkotuta gazteen eskura jarriz, irakurzaletasuna piztu eta sustatzen lagundu nahi dute Klis-Klasikoek.

2012 urtean zehar titulu Klis-Klasiko gehiago iritsiko direla iragarri dute sortzaileek. Bilduma berriaren sorreran Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza politikarako Sailburuordetza lankide izan du Galtzagorrik.

LA SERIE DE CULTO DE MILES DE JÓVENES

GIOVANNI DEL PONTE

LOS INVISIBLES

En 1938, una banda de adolescentes, defensores y protectores de los niños, hicieron un rito de sangre para acabar con el poder de un mago. 60 años después, el poder del mago está resurgiendo...

LOS INVISIBLES DEBEN REGRESAR

El secreto de Misty Bay




12,50 €

La bruja de Dark Falls




12,50 €

SAN PABLO

IRRIEN LAGUNAK KLUBA

# IRRIEN FESTA elkar aretoetan

Irrien Lagunak Klubeko pertsonaiak elkar aretoetan izango ditugu larunbatetan aurtengo udaberrian. Martxoaren 17tik aurrera Marikalanbre, Largabista, Ane Pirata, Tiritatxo, Amona Txinparta eta Martin Bertso ariko dira zuzenean elkar aretoko tailerretan bertatik bertara haurrekin jolasean.

Pertsonaia hauetako bakoitzak dagokion rola jokatzen du Pupu eta Loreren hezketan. Marikalanbre eta Amona Txinparta dira zientzia arloaren arduradunak; kultura





berriz, Martinbertsorena da; osasuna eta elikadura Tiritatxo pediatraren ardura dira; naturaren maitale eta irakaslea Largabista da; eta azkenik, Ane Pirata dugu, elkartasuna lantzen duena.

Martxoaren 17an hasita, hilabeteroko hirugarren larunbatean pertsonaia hauetariko bat izango da elkar liburu-dendetako aretoetan, orain arteko tailerren egitarauaren barruan. Ipuin kontaketak, jolas dibertigarriak, osasunarekin eta elikadurarekin lotutako aholkuak edo ariketak, tailer hezitzaileak eta, batez ere, ondo pasatzeko eta irria zabaltzeko saioak izango dira. Beheko koadroan ikus daiteke noiz eta non egongo den pertsonaia bakoitza, jarraitzaileek garaiz aurreikusi dezazuen. Sarrera irekia izango da nahi duen ororentzat.

Pertsonaia hauek guztiak, Pirritx, Porrotx, Mari Motots, Pupu eta Loreren lagunak dira, eta beraiekin batera agertzen zaizkigu Irria aldizkarian hilabetero. Orain, gainera, zuzenekoetan, umeengandik hurbilago egoteko modua egin dute elkar aretoetara hurbilduz.



Ez hutsik egin!
Etorri
irrien festara
elkar aretoetara!





| | MARTXOA 17 | APIRILA 21 | MAIATZA 19 | EKAINAK 16 |
|---|---|---|---|---|
| Baiona 11:00 | Largabista | Amona Txinparta | Marikalanbre | Martinbertso |
| Donostia 12:00 | Marikalanbre | Largabista | Martinbertso | Amona Txinparta |
| Bilbo 12:00 | Tiritatxo | Marikalanbre | Largabista | Martinbertso |
| Gasteiz 12:00 | Amona inpartaTx | Tiritatxo | Martinbertso | Largabista |
| Iruñea (Comedias kalea) 12:00 | Largabista | Martinbertso | Amona inpartaT | Ane Pirata |
| Iruñea (Larraona auzoa) 12:00 | Martinbertso | Largabista | Ane Pirata | Marikalanbre |

EUSKARAZKO LITERATURA GUZTIA!




### +2 urte




**NORENA DA?**
Emile Jadoul
**Ibaizabal**

Beren eguneroko bizimoduari, animaliei eta ipuin tradizionaletako pertsonaiei buruzko haurren jakin-nahia eta arreta sustatzeko liburu bilduma dibertigarria, galderaz eta aurkikuntzaz beteta. Umorez eta asmakizunez betetako orrialdeak ditu, ehundura ugaritakoak, baita orri tolesgarriak ere, txikienentzat.




**MI ABUELO**
Marta Altés
**Macmillan**

Un libro repleto de ternura sobre el inmenso cariño que siente un nieto por su abuelo. El abuelo se está haciendo mayor. Pero él es así, y por eso el niño le quiere tanto.

### +2 urte



**ZALDI URDIN BAT MARGOTU ZUEN ARTISTA**
Eric Carle
**Pamiela**
**& Kalandraka**

Espresionismoaren aitzindaria izan zen Franz Marc (1880-1916) aleman margolariari egindako omenaldi bat da. Haren "Zaldi urdina" margolana Eric Carle-ren liburu honen abiapuntua izan zen.



**ILARGIA LAPUR**
Pablo Albo
eta Pierre Pratt
**OQO-Txalaparta**

Fantasiaz eta irudimenaz baliatu da Pablo Albo kontakizun honetan, eta goxotasunez eta umorez landu du haurrentzat eta gurasoentzat zaila gertatzen den erronka: txupetea uztea Ez baita kontu erraza. Txupeteak zama sinboliko eta afektibo handia izaten du haurrentzat.

### +2 urte



**IZAN AMETS HANDI LILI TXIKI!**
Kristi Yamaguchi
**Mezulari**

Lili hinkili-hankala eta bilin-bolonka dabilen txerritxoa da. Izarra izan nahi du! Baina berehala konturatzen da ez dela ematen duen bezain erraza. Izotz gainean irristatzen jira eta bira ibiltzea zoragarria dela konturatzen denean, hasten da bere buruarengan sinesten: Lili, irristatze-pistetako izarra!

### +5 urte



**THE GREAT MAGICIAN OF THE WORLD**
Fran Nuño
**Cuentos de Luz**

Magia hainbeste maite dut! Sinistituta nago mago handi bat naizela, eta munduko truku eder eta dibertigarrienak egin ditzakedala. Amesten dut goizero zilarrezko txanpon handi bat desagerrarazten dudala zeruan. Kolorez eta poesiaz betetako liburua da, haurrekin ingelesa praktikatzeko aitzakia polita.

### +5 urte



**LOBO GRANDE& LOBO PEQUEÑO**
Nadine Brun-Cosme
**Jaguar**

Desde hace tiempo Lobo grande vivía solo bajo su árbol. Un día apareció Lobo pequeño. Ahora, bajo el árbol, eran dos. Para Lobo grande, el solitario, no era fácil aceptar a otro lobo. Este libro sencillo y fácil de entender cuenta una historia muy madura y profunda sobre la soledad y el valor de la amistad.




**ZOE AND BEANS**
Chloë & Mick Inkpen
**Macmillan**

Zoek maskota bat du, Beans izeneko bere zakartxoa, baina benetan maite duena Molly panpina da. Beansek aldiz, bere maskota galdu egin du eta Mollyrekin obsesionatu da. Liburua ingelesez da.

### +5 urte



**GURE HIZTEGI MAGIKOA**
Pello Añorga
& Jokin Mitxelena
**Aizkorri**

Igor saltoka hasi da ohe gainean: don, don, don! Eta ez saltoka bakarrik, zeren honela agindu baitit mantapetik: –Aitatxo, kontatu ipuin bat–. HIZTEGI MAGIKOA erakutsi diot, dena hitzez betea, entzuteko diren hitz magikoz. Eta, ene, a ze MAGIA sortu den!




**RITA ESTU ETA LARRI**
Mikel Valverde
**Elkar**

Ritak arazo bat dauka: gurasoek batere gustatzen ez zaien xurgagailu bat itzuli behar dute, gailuak opari zekarren panpina esklusiboa barne, eta Ritak ez du jostailua inon aurkitzen. Gurasoek espero dute agertuko dela panpina. Beraz, Ritak eginahalak eta bi egingo ditu aita eta amaren nahia betetzeko.

### +5 urte



**MAKIA VELA. LA ESCUELA DE BRUJAS**
E.B. Castillo
& Moni Pérez
**Beascoa**

Makia Vela es una bruja adolescente a la que acaba de aparecerle una nube sobre la cabeza… ¡Es la señal de que es una bruja con talento especial! Tendrá que asistir a clase en la Escuela de Brujas de Abracadabra para aprender a controlar su extraordinario poder.




**APRENDE A HACER DIBUJOS DIVERTIDOS**
**San Pablo**

Una guía para aprender a dibujar con instrucciones e indicaciones sencillas. Este libro ayudará a los niños a desarrollar sus habilidades y les dará confianza a la hora de dibujar. Contiene información sobre los materiales y las técnicas. Incluye rotulador y plantillas para dibujar. ¡Con más de 80 dibujos!

## +10 urte



### AI XIMUN XIMUN!

Antton Kazabon
eta Jon Zabaleta
**Erein**

Txirrixt sagua munduko animalia guztien lehendakaria da, eta Burkail Zuri izeneko mendi erraldoiaren oinera deitu ditu animalien ordezkariak, batzar horretan garrantzizko gauza bat erabakitzeko. Ximun mutikoa beldurrak airean dago. Zertarako elkartu ote ditu Txirrixtek animalia guztiak?



### PEPINOEN MISTERIOAREN KASUA

Joachim Friedrich
**Giltza**

Udalak basotik hurbil dauden baratzeak desjabetzeko erabakia hartu du. Baratze horietako batean bizi da Xarmant, Txarli & Company detektibe-agentziako txakur azkarra. Horrez gain, gauza arraroak gertatzen hasi dira baratzeetan. Eta beti gauez gertatzen dira…



### ÁLIX Y LA LLAVE DE LAS MARAVILLAS

Adrián Papadopoulos
**Comanegra**

Álix es diferente. Le cuesta soñar despierto como a los otros niños porque una máquina se lo impide. Sólo puede soñar cuando duerme y, aún así, sus sueños lo llevan por extraños paisajes que escapan de su control. Hasta que una noche se encuentra con un misterioso compañero de viaje.



### A LA SOMBRA DE LOS PIRATAS

Boris Le Roy /
Benjamin Adam
**TakaTuka**

